



## KARDIOBERTSIO ELEKTRIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

### Zertan datza proba?

Kardiobertsio elektrikoa toraxean deskarga elektriko bat ematean datza, alterazio zehatz batzuetan bihotzaren erritmoa normalizatzen saiatzeko.

Tratamendu hori egiteko, ordu batzuetan ospitaleratu behar zaituzte, normalean goiz batean.

### Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da baraurik egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Zure ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu, tratamendu antikoagulatzailea barne (Sintrom®, warfarina, dabigatran, apixaban, erribaroxaban edo edoxaban).

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Gosarian ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levenir®, degludek, glargina...), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-unitatean sartzean kendu beharko duzu.

Oso komenigarria da proba egunean senitarteko edo lagun batekin joatea.

### Non egingo didate proba?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan

### Nola egingo didazue proba?

Proba sedazio sakona erabiliz egiten da, eta, beraz, anestesista batek balioetsiko du, eman beharreko deskarga elektrikoa desatsegina ez izateko.

Erizainak zain-bide bat jarriko dizu besoan, prozeduran sedatuta egoteko aukera emango dizun medikazioa emateko.



Ohatilan etzango zaituzte, eta gorputza gerritik gora agerian izango duzu. Halaber, elektrodoak jarriko dizkizute azterketa osoan EKG ikusteko, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Azterketaren iraupena aldakorra da, gutxi gorabehera, 10-20 minutu bitartekoa.

### **Zer egin behar dut probaren ondoren?**

Eguneko Ospitale Medikoko boxean egongo zara sedaziotik errekuperatu arte.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.

Egun horretan ezingo duzu gidatu, makina arriskutsurik erabili edo erabaki garrantzitsurik hartu.